

{ koaderno } **Joana Garmendia**

Kataluniako zenbaki-dantza

Aste hauetan irudirik ibili bada sare soziale-
tan aurrera-atzera, Kataluniako manifesta-
zio eta ekitaldien irudiak izan dira gure or-
denagailuen eta bestelakoen pantailak
bete dituztenak. Bada marrazki bat behin
eta berriz ikusi dudana, eta deigarri egin
zaidana: ezker aldean manifestazio jendetsua dago, lasai
ederrean, pankartaz eta banderaz jantzia. Eskuin aldean,
izkina batean, norbait ari da bortxaz auto bat txikitzen.
Erdian, hamar bat kazetari: den-denak eskuin izkinara
begira, autoari eraso egiten ari zaion hari argazkiak egi-
ten, irudiak grabatzen, arreta osoa eskaintzen. Erraz
ulertu dugu marrazkilariak adierazi nahi izan duena: ka-
zetariak, gertatu diren gauza guztien artean, bakan ba-
tzuk erakutsiko dizkigutela; eta ez beti, gauzarik nabar-
menenak, handienak, objektiboki garrantzitsuenak.

Marrazkiko kazetarien jokaera gaitzesgarria irudituko
zaio, akaso, jende gehienari; marrazkia egin duenaren
helburua, behintzat, gaitzespen hori erakustea izan da,
bistan denez. Zalantza sortzen zait niri, ordea: zenbate-
raino dugu jokaera hori gaitzesgarritzat? Esan nahi dut,
kazetari batek, kazetari denez, egin behar ez lukeen zer-
bait al da? Ez nago ziur puntu horretaraino ote dauka-
gun gaitzesgarritzat. Esango nuke, gehiago, egoki ez de-
ritzagun arren kazetariak egiten dutela badakigun
zerbaitzat daukagula. Publizitate-iragarkietan errealita-
tea apaindu egiten dutela dakigun moduan. Edo, gisa
bertsuan, politikariak hauteskunde-kanpainan egindako
promesak ez direla bene-benetakoak dakigun moduan.
Ez zaigu oso zintzoa irudituko, baina, tira, hori da kaze-
tariak, publizistek eta politikariak egiten dutena.

Pentsa, bestela, zein alde legokeen marrazkiko kazeta-
riak egin dutena egin duenaren eta argazki bat berariaz
Photoshop bidez aldatu eta horrela publikatu duenaren
artean. Nago, bigarrenaren jokaera gogorrago gaitzetsi-
ko genukeela. Aldea ikusiko genukeela batak eta besteak
egindakoaren artean. Argazki bat, nahita, moldatu, ger-

tatu ez den zerbait erakutsi dezan (edo alderantziz)? Ka-
zetari batek ezin du hori egin, ez da zilegi; gaitzetsi eta
zigortzekoa den jokaeratzat daukagu hori. Baina, bene-
tan al da horren nabarmena bi jokaeren arteko aldea?
Azken batean, esango nuke, biek dute helburu bera: ez
digute gertatu dena gertatu den bezala erakutsi nahi.

Berdin gertatzen da, argazkiekin ez, eta hizkuntzare-
kin ari zaizkigunean. Gauzak hitzez kontatzen ari zaizki-
gunean, alegia. Kazetariak erabakitzen du, marrazkiko-
gisara, zer kontatu eta zer ez. Are gehiago: erabakitzen
du, baita ere, gauzak nola kontatu, eta nola ez. Eta, konta-
tzeaz ari garela, auzi honek eragiten die zenbakiei eta ko-
puruei ere. Zehatzetan zehatzena eman dezakeen horri,
bai. Inork pentsa lezake kopuru baten berri ematean
gauzak zuri edo beltz direla, egiazko edo faltsu: 20 lagun
bildu direnean egia bakarra 20 bildu direla esatea dela;
ez 21, ez 19. Bada, ez.

Ohituak gaude manifestazio, greba edo antzeko deial-
di baten biharamunean zifra-borrokak ikustera komuni-
kabideetan. Halaxe izan da Bartzelonakoan ere: antola-
tzaileek 750.000 zirela diote; Poliziak, 525.000.
Komunikabideek, bat edo beste –nora lerratzen diren–.
Kopuru-dantza horretan, baina, batek egia esan du, bes-
teak ez. Hor ez dago grisik; hor zuri edo beltz da. Zifra
faltsua eman duen kazetariak, gezurra esan du, Photos-
hop erabili duenak nola. Eta kazetari batek ez luke gezu-
rrik esan behar, ez da zilegi; gaitzesgarria eta zigortzeko
modukoa da hori.

Baina kopuruekin ere bada grisean dantza egiten due-
nik. Bartzelonako manifestazioaz, irakurri dut “ehunka
mila” lagun bildu zirela, baina baita “milaka” zirela ere,
edo “ehunka”. Ehunka lagun. Ez da gezurra: 750.000, ba-
dira, izatez, “ehunka lagun”. Hor ez dago Photoshopik.
Baina, marrazkiaren eskuineko izkinara begira jarri nahi
gaituen kazetariak bezalaxe, hori idatzi digunak ere ez
digu errealitatea bere osoan erakusten. Baina, tira, hori
da kazetariak egiten dutena. •

Irakurri dut Bartzelonan «ehunka mila» lagun bildu zirela, baita
«milaka» edo «ehunka» ere. 750.000 badira «ehunka», baina
hori idatzi duenak ere ez du errealitatea bere osoan erakusten